



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

2016KO AZAROAREN 28AN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO BILKURAKO AKTA.-

Adunako udaletxeko Kultur aretoan egin du bilera 2016ko azaroaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amondarain Tolosa
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Pili Legarra
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala
IKAZTEGIETA UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar, Jesus M^a Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ALBIZTURKO UDALA (%0,53)
ALEGIAKO UDALA (%2,85)
ALKIZAKO UDALA (%0,61)
ALTZOKO UDALA (%0,65)
ANOETAKO UDALA (%3,09)
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (%0,39)
GAZTELUKO UDALA (%0,28)
HERNIALDEKO UDALA (%0,57)
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61)
ORENDAINGO UDALA (%0,32)
OREXAKO UDALA (%0,20)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2016ko irailaren 5eko eta 26ko Batzarren Aktak onartzea.**
- 2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Batzorde Berezia eratzeko, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariaren izendapena.**
- 3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2016ko uztailaren 28an onartutako estatutuen aldaketa proiektuari onspena ematea.**
- 4. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2016ko uztailaren 28an onartutako Baldintza Pleguen aurrean, “Gipuzkoako ingurumen gunearen diseinu, finantzaketa, eraikuntza, operazio eta mantenu” kontratua arautzen dutenak, errekurtsioa jartzea.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mendiguren Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Alegia, Alkiza, Altzo, Anoeta, Gaztelu, Hernialde, Leaburu-Txarama, Orendain eta Orexako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALEGIAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Aritz Sarria Sarasketa.
ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
HERNIALDEKO UDALA: Ordezkaria, Aritz Sarria Sarasketa.
LEABURU-TXARAMAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
OREDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2016ko irailaren 5eko eta 26ko Batzarren Aktak onartzea.

Izenburuan adierazitako aktak ahobatez onartu dira.

2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Batzorde Berezia eratzeko, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariaren izendapena.

Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du: “Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidentek Kontsortzioaren Kontuen Batzorde Berezia eratzea proposatu du, 2014 eta 2015 ekitaldietako Kontu Orokorren informatzeko xedez. Batzorde Berezi horren osaketan kontsortzio-erakunde guztien ordezkariak proportzionala mantendu behar da”. Hori dela eta, Tolosaldeko Mankomunitatearen ordezkaria izendatzeko eskaera iritsi zen joan den azaroaren 10ean, eta Mankomunitateko lehendakari gisa, bere burua aurkeztu du ordezkariak hori betetzeko.

Ondoren bozketa egin da eta Batzarrak ahobatez

ERABAKI DU

LEHENA.-Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontuen Batzorde Berezia eratzeko, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkari gisa mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua izendatzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko izendapen honen berri ematea, bere Batzar Orokorren hurrengo bileran zein alde aurretik.

19:05etan Larraul eta Lizartzako Udaletako ordezkariak bertaratu dira.

3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorren 2016ko uztailearen 28an onartutako estatutuen aldaketa proiektuari onspena ematea.

Mankomunitateko Idazkariak adierazi du gai zerrendako puntu hau onartzeko Batzarraren gehiengo absolutua beharrezkoa dela. Bere txostena espedientean barneratzen da.

Jarraian Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du “Gaia gogora ekarriz, martxoan inguruan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko bere Estatutuen aldaketa prozesua hasi zuen. Zehazki, martxoaren 22ko Batzar Nagusiak Kontsortzioaren Estatutuak aldatzeko proiektua hasierako izaeraz onartu zuen, eta jendaurrean jarri zuen, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontsortzioaren webgunean argitaratu zelarik. Horretarako ezarritako epe barruan alegazio bat aurkeztu genuen Tolosaldeko Mankomunitatearen izenean, erabaki horren aurka, zeina erabat ezetsi zuten, aintzat hartu gabe. Eta hala, uztailearen 28ko Batzar Orokorrean, behin betiko izaeraz onartu zuten Kontsortzioaren Estatutuak aldatzeko proiektua. Erabaki hau ente kontsortziatuoi jakinarazi ziguten, lau hilabeteko epean gure onspena eman geniezaion, gehiengoaren aldeko botoa ezinbestekoa delarik. Hala bada, horixe da orain erabaki behar duguna.

Laburbilduz, Estatutuen aldaketa honen atzean dagoen helburua, erraustegiaren eraikuntza eta kudeaketa lana enpresa pribatu bati ematea da, zerbitzu zuzen bat zeharkako zerbitzu bilakatuz. Gure proposamena, orain arteko bidea jarraituz, erabaki honen aurka bozkatzea da, hau da, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen aldaketa proiektuaren behin betiko onarpena ez onestea.”

Ondoren, bozketa egin da. Abaltzisketako Udaleko ordezkaria abstenitu egin da (%0,54), Irura eta Tolosako Udaletako ordezkariak onespina ematearen aldeko botoa eman dute (%33,64) eta gainerako 20 Udaletako ordezkariak aurkako botoa (%54,66). Emandako botoak ikusita eta Batzarreko botazioetan erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den eta Idazkariak bere txostenean adierazi duen gutxieneko kopurua bete ez denez, Batzarrak ez du onetsi Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak 2016ko uztailaren 28an harturiko erabakia, Kontsortzioaren Estatutuak aldatzeko proiektua behin betiko onartzen duena, eta hala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari.

4. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2016ko uztailaren 28an onartutako Baldintza Pleguen aurrean, “Gipuzkoako ingurumen gunearen diseinu, finantzaketa, eraikuntza, operazio eta mantenu” kontratua arautzen dutenak, jarritako errekurtsio bereziaren urriaren 3ko 3/2016 ebazpena, Kontratazio Alorreko Foru Auzitegi Administratiboarena, inpugnatzea.

Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du “Dakizuenez, 2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak “Gipuzkoako Ingurumen Gunearen diseinu, eraikitze, finantzaketa, eragiketa eta mantenuaren lizitazio kontratua arautzen zuten Baldintza Pleguak onartu zituen.

Tolosaldeko Mankomunitatearen batzar honek hala erabakita, abuztuan kontratazio arloko errekurtsio berezia aurkeztu genuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazio Alorreko Errekurtsioetarako Foru Auzitegi Administratiboan. Kontratazio prozeduraren tramitazioa etetea eta Pleguak bertan behera uztea eskatu genuen.

Urriaren 3an Auzitegiak ebazpena eman zuen, eta erabaki zuen ez onartzea Mankomunitateak jarritako kontratazio-arloko errekurtsio berezia, adieraziz Tolosaldeko Mankomunitateak ez duela eskubide edo interes bereziturik Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorako. Hau da, ez gaituzte interesatu bezala kontuan hartu, eta beraz ez dira gaia sakontzera sartu. Gaia aztertu izan balute zaila izango zuten gure argudioak eta beraz errekurtsioa atzera botatzea, eta horregatik, hau da Foru Aldundiak erabili duen trikimailua, zerbitzu juridikoek gaian sakondu ahal ez izateko.

Batzar honen deialdiarekin batera txosten juridiko bat jaso duzue, eta bertan adierazten diren argudioetan oinarrituz, epaitegietan kontentzioso bat jartzea proposatzen dugu, izendatuta ditugun abokatu eta prokuradoreekin.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Ez dugu egiten bat zure irakurketarekin, ez delako egokia eta honek ez dauka ibilbiderik, alferrik delako inora ez doan gauza batean sartzea, eta denbora eta dirua gastatzea bakarrik dakar. Postura mantentzea besterik ez da hau. Bakoitzak izan zuen momentua eta aukera bere apustua egiteko eta hor daude emaitzak, horiek dira bozkak. Guk onartzen ditugu, baina badirudi zuek ezetz.”

Lehendakariak: “Esan izan dut, gehiengoak aldeko botoa emateak eta gutxiengoak aurka egiteak ez du esan nahi gauzak ondo egiten ari direnik. Badakigu hemendik 2 edo 3 urtera arte ez dela sententziarik egongo, eta ziurrenik ordurako errauskailua eraikita egongo dela. Baina gerora ere etor daitezke ondorioak, gauzak orain ez badira ondo egiten. Eta bide hori jarraitu behar dugu. Egoki al deritzozu Foru Aldundiak Mankomunitatea aintzat ez hartzea gai honetan?”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Ez dugu denborarik izan gaia gehiago aztertzeko. Baina argi dago, bakoitzak daukan ordezkaritza dauka, dagokion lekuan.”

Andoaingo Udaleko ordezkariak: “Nik zera esan nahi nuke: batetik, ekintza hauek alferrik izatearen argudioa eta argudio ekonomikoa jarri dituzu, baina guztiok dakigu erraustegiak osasun-kalte eta diru mordoa gastatzea dakarrela. Bigarrenik, gutxiengoan egon arren, defendatzen ditugun argudioek oinarria baldin badaukate, eskubidea daukagu gure iritzia adierazteko, helegiteak jartzeko, eta orokorrean eskura ditugun prozedura eta bide guztiak jarraitzeko; gero epaileek esango dute esan behar dutena. Eta hirugarren eta azkenik, gogora ekarri nahi dut aurreko agintaldian gu ginela gehiengoan, eta zuek ere ez zenutela hori onartu, sekulako kanpaina egin baitzenuten gure aurka, bai kalean, bai hedabideetan, eta zenituzten medio guztiak manipulatu, gehiengoa errespetatu gabe. Zuen eskubidea zenuten, noski, baina orain zuk argudio hori erabiltzeak ez da zilegi.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Bigarren puntuarekin ados nago, beste biekin ez, noski.”

Lehendakariak: “Bide honek aukera ematen digu, gauzak orain gaizki egiten ari badira eta epaile batek hori esaten badu, etorkizunean frogatu ahal izateko orain esaten ari garena eta argi uzteko abisatu genuela. Eta baliteke horrek bestelako ondorio ekonomikoak ere ekartzea.”

Gaia aztertu ondoren, bozketa egin da. Abaltzisketako Udaleko ordezkaria abstenitu egin da (%0,54), Irura eta Tolosako Udaletako ordezkariak aurkako botoa eman dute (%33,64) eta gainerako 20 Udaletako ordezkariak aldeko botoa (%54,66). Emandako botoak ikusita eta Batzarreko botazioetan erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den gutxieneko kopurua bete denez, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua ahalmentzea administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboaren urriaren 3ko 3/2016 Ebazpenaren aurka, zeinaren

bitartez “Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1.faseko diseinu, finantzaket,a eraikuntza, operazio eta mantenu kontratua” arautzen duten baldintza pleguen aurka ezarritako kontratazio alorreko errekurto berezia ebazten den, horretarako izendatuta dauden abokatu eta prokuradoreekin. Baita ere ahalmentzea Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defenditzeko beharrezko diren ekintzak eta neurriak hartzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan eta GHK SAUk Gipuzkoako Ingurumen Gunearen inguruan hartzen dituzte erabakien eta ematen diren mugimenduen aurrean (dokumentazioaren azterketa, bestelako helegiteak...).

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

5. Galde-erreguak.

Lehendakariak ohartarazi du epe laburrean Batzar hau berriro biltzeko beharra dagoela, besteak beste, 2017ko ekitaldirako aurrekontua onartzeko. Eta hala, datorren abenduaren 19a proposatu da bilera egiteko data gisa.

Bestetik, Lehendakariak zera jakinarazi du: “Abenduaren 2an, ostirala, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorren bilerarako deia egina dago, eta beste puntu batzuen artean, Kontsorzioaren Estatutuen beste aldaketa prozesu bat hastea proposatuko da. Aldaketen artean, Batzarraren ezohiko eta premiazko deialdiak egiteko epe aldaketa da aipagarriena. Beste gai batzuk ere landuko dira, eta hurrengo Batzar Orokorrean azalduko ditugu.”

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 19:25 direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA